

AXULARREN ESTILOTIK

Estilistikaz lehen jardunaldiak.
Euskaltzaindiaren literatura batzordea.
Gernikako jaiak.

1988-IX-29

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

Jaun-andreok:

LEHENBIZIKO PARTEA

1. Axular euskal estilistikan

Lan honetan, Axularren estilotik abiatuz, euskarak estilistikarako eskaintzen dizkigun aberastasun estalietarik apurren bat ekarri gura nuke argitasunera. Ch. Bally-ren hitzetan (1) linguistikako adar den estilistika, hizkuntzaren posibilitate estilistikoen inventariuma baldin bada, eta ez autore jakin batek posibilitate horiek borondatez eta konturaturik erabiltzea, nik hemen Axularrek jakinaren gainean taiutzen duen estiloa abiapuntutzat hartuta, euskarak estilorako eskaintzen dituen baliakizun ugarietarik, determinatzaileena jorratuko dut.

R. Jakobson-i beharko natzaio jarraitu dioskunean ezen “Funtzio poetikora-ko gor den linguista nahiz linguistikaren metodo eta arazoetan ezjakin den literaturako jakintsua anakronismo” direla (2). Dagokidan neurrian, derrigorrezko gramatika eskuartean dudalarik, estilistikari zuzenduko dizkiot aipamenak. Ahan-tzi gabe, beti ere, estilistikarekin estetikan dihardugula, eta Kant-ek dioenez, estetikari buruzko eritziak subjektiboak direla.

Bestela esanda, estilistikari buruz ari garenean “Duda egin daiteke zein den (narratzaileko) biderik zuzenena, biziena, egokiena edo nahi duzuenena; ez, ordea, zein den gramatikari lotuena eta atxekiena” (3) estilistika ez doa Chomsky bezalako gramatikariaren objektibotasunaren bila, estilistikan objektibotasuna gehien dakitenek, genioek, idazle haundiek seinalatzen digutena da. Ez genuke onartuko, beraz, Aingeru Irigaray jaunak, beste askotxoren eritzia bildurik, erraiten diosku-

na: "Algunas frases de zeren, —ezen (de Axular, alegia) tan criticadas ciertamente admiten corrección..." (4) guretzat ereduia Axular bera delako.

Kontatzen da nola behin Oscar Wilde-ri bere editoreak eskatu zion idatzitako obretarik batetan zenbait pasarte alda zitzala. Hori entzutean, biziki haserratuta, ezetz biribila eman zion idazleak, zirautsola, "Bada, nor naiz ni klasiko bati zuzenketak egiteko?" (5).

Axularren "zeiñismo" eta "zeren"ak irakurtzerakoan ezin dezakegu sekula ere ahantz "...Euskal Herrian osatu den hizkera literario hori ez dela oso desberdina, esaterako, Ingalaterran osatu denarekin. Mendebaldean hizkuntza guztiek sortu ditek hizkera literario antzekoa. Mendebaldeko hizkera literarioa" (6) Bernardo Atxagaren hitzetan.

Gure klasikoei so egiten diegunean ez dugu, agian, behar hainbateko zorroztasunez bereizten hizkuntza mintzatua ahozkotik. Federiko Krutwig jaunak esan digu goizean: "Rhetorikea ondo mintzatzeko tekhnea dela eta "stylistikea iratz-hizkuntzaz ari dela" (7). Ni hemen estilistikaren ildotik nabilkizuenez, Buffonen berbei natxake: "c'est par cette raison que ceux qui écrivent comme ils parlent, quoiqu'ils parlent tres bien, écrivent mal" (8). Hitz dagiten moldera idazten dutenek, oso ongi mintzatu arren, oso gaizki idazten dutela, alegia.

Eta zenbateraino da gramatika, noraino da idazlea jarraitu behar dugunerako eredu? "Gramatika eta beste ikasbideak hizkuntza baten estruktura ematen digute gehienetan. Baina horrekin ez dago guztia eginik. Hori hezurra besterik ez da, gainaldea, azala. Eta hezur horren barneko muin edo gunaren beharrean gaude oraindik" Aita Villasanteren hitzekin nabilkizue "Izan ere, hizkuntza baten arima, jeinua, non da? Nik esango nuke kanpoaldeko estruktura horretan baino areago dela arima hori, itzuliketetan, idiotismoetan, esaldiak antolatzeo tankera jator berezian eta abar. Eta hori denori non ikas? Hiztun onen ahotik ere bai (Ikus ezazue horretarako Gotzon Garateren "Erdarakadak" liburuan datorren aberastason aberatsa), segurki, baina idazteko premietaz ari garelarik, idazle jator handien obretarik" (9).

Idazle jator handietarik, berriz, zer bereganatu beharko du estilo bila dabilenak? "Un modelo no es algo que haya que copiar o calcar. Es algo que está ahí al lado de otros, como aguijón y acicate para que cada uno llegue a expresar lo que tiene que expresar de una manera personal y digna. Axular, escritor de su tiempo dijo lo que tenía que decir en una prosa natural, flexible, rica y elegante" (10).

Mukarovsky-k dioenez, hizkuntza poetikoa aktualizatzeko, aurrea eman behar zaie, bai dominante diren arau estetiko-literarioei, baita aurreko estratoetako hizkuntza literario berari ere. Errekurtso artistikoen balio estetikoa erlatibo da. Ez da inoiz zerbait estatikoa. Baliabide estetikoen balioa, eboluzionatuz doan prozesu moduan hartu behar da. Eboluzionatuz doan hori, tradizio artistikoko ondarearen kontra eta inguru sozial eta kultural beti aldakorrekin loturik" (11).

Gainera, gramatikak orizontalki ondenatzen badu hizkuntza, estilistikak behetik gorantz edo goitik beherantz du ondenatzen, gailurrean Leizarraga eta Axular jarririk. Europaz ari bagara, goian grekoa, azpian latina eta abar ezarten dituela.

Hurbil gatazka Axular eta Mogeli: "...Mogelek Eibar eta Markinan, mila zortziehun inguruan, eta Axularrek Saran, hamazazpigarren mendean, ez zutela

jende mota berarentzat idatzi, eta batak maila batean eta besteak bestean idatzi zuela” argi dago (12). Zabaldu ere horregatik zabaldu zen burgesen artean Axularren liburua, dio Mitxelena jaunak, Gero-k ikasia edo erdi ikasia izatea eskatzen baitzuen, irakurtzen aski ongi jakitea. “Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten, eta ez xoil, deus ezta kitinentzat ere” (13).

Estilistikaren alderdi pragmatikora gehiegi jaitsiko ez banaiz ere, oraingoan, zerbait azalduko dut. Axularrek eta Mogekek maila desberdinetako irakurlegoarentzat idatzi zutela jakinik, guk zein mailatan eta norentzat idatzi behar dugu? Estilistikari buruzko jardunaldiotan piramidearen gailurrari legokiokeen prosa egiteko moldeaz ari gara, baina “Barne muñetan” edo “Gero” irakurriaz hasi behar ote du, derrigor, literatura irakurtzen hasi nahi lukeen euskaldunak?... Lehen biraorik egoterik ez zegoen moduan, ez al du egon behar Estefaniarik? Zentzu honetan, Gereñoren nobelak ez dira literatura, baina literatura egiten ari dira narratibaren desarroilo handirik ez duen euskal literaturan” (J. Azurmendi, E.L., o.c., 423. orr.).

Bestalde, nola hel idazle haundien obrara? Mundu guztian egin ohi den modura, **ha** on lanak aztertu eta ikasirik. Nola heldu zaie prestigea inguruko erderei? Besteren artean, estudiantik, ikastetik. Estudioaren, nekearen ondorioz jaso denean espiritua, orduan datorke atsegina. Hori horrela, ni oso tristatzen nau Añibarrok Axular bizkaieratzeak, nahiz Arruek Mendiburu gipuzkeratzeak. Badi-rudi, gu idazle haundien mailara jasotzen saiatu beharren, Horatius-en *aurea mediocritas* hartan bizitzea, haiek apaltzea, dugula atsegin. Axular zein Mendiburu ez dira moldatu behar, bere hartan irakurri behar dira. *Kresala* euskara batuan jarririk ez goaz inora, horrela ezin dezakegu estilistikarako biderik urratu. Espiritu erreduktionista, apaltzaile, erdimailakozale horrekin ez goaz aintzineratu.

2. Zergatik axular?

Irailaren 29 honetan, XX. mendeak Axularrek hainbat urte betetzen ditue-nean, zertara dator idazle jakin honi buruzko saio berezia estilistikaren gaineko jardunaldiotan egitea?

Ni, gai netarara, Umberto Eco-ren hitzek darakuskiguten espirituz nator, jakinik zer den “vivere l'arte come la vita, dove entriamo quando i giochi sono già stati fatti, e donde usciamo senza sapere dove gli altri andranno a finire?”

Ohar gaitetzen! Axular handiak, hiru mende luzetan hiru edizio bakarrik ezagutzeak zer adierazten digu? “Literatura ez da literatura, liburuak eta gainerako paperak apal apainetan jasoak eta bilduak dauden bitartean. Bestela esan, norbaitek hartu eta irakurtzen ez dituen bitartean” Hori idatzi zuen Koldo Mitxelenak (15). Geroago, 1978an, W. Iserrek testuaren indeterminazioari buruz azalduko digunez, “El texto no formula su propio sentido. Únicamente se genera o constituye la significación en el propio acto de lectura. Es la lectura la que cierra el texto que hasta el momento de leer es abierto e indeterminado... El texto nace al mismo tiempo que se lee” (16).

Hortxe bertan kokatu nahi nuke zergatik Axular eta zergatik gaur galdera? Zuetarik norbaitek eskua luza baleza eta oraingo Gotzon Garateren *Erdarakaadak*

nahiz lehenagoko *Musika Ixilla* hartu, nork edo nork Jose Austin Arrietaren berbak *Gerotik gerora eta gerotik hurrengora* irakur balitza egunkarian edo gerta balitzaio Jose Mari Iriondok isla bakartira Axularren *Gero* eraman nahiko lukeela irakurtzea, ulertu duke zergatik Axular gaur.

Chesterton-ek klasikoei buruz dioenari ihardetsiz dio Mitxelena jaunak: “La curiosidad, y con la curiosidad la afición por la obra del escritor navarro ha crecido estos últimos años, hasta el extremo de que el autor clásico ha dejado por fin de ser un “clásico”: es decir un autor cuya obra se encomia y pondera oportune et importune pero que no se lee jamás” (17).

Axular eta Leizarraga ezagutu ostean, ordea, nekez edo halabeharrez irakurriko duzu, idazle haundiok aintzat hartu gabe, literaturako liburuia izkiribatzen duen autore gaurkoa. Behin bilakatu/bihurtu bereizten ikasi eta “Urli bere pilotarako gaitasuna garaturik txapeldun bilakatu zen” eta ez bihurtu dakigunean; “begiak zerurantz irauli zituen” eta ez itzuli badazagut; ozta-ozta irakur nezake egon ere ez baleude bezala diharduen izkiribatzailea.

Erraiten digu Aita Villasantek: “Euskaldunon euskalduntasuna zergatik izan ohi da gehienetan hain mehea, axalekoa, erorkorra eta galtzenerraza? Hizkuntza horretan eskola sakon iraunkorrik egin ez dugulako, geure hizkuntzako maisu-lanik pixka bat sakonki ikasi eta geuretakotu ez dugulako. Haatik, gure literaturak, bere ttipian izan ditu, bai, horrelako maisu-lanak. Zoritxarrez ez ditugu ezagutzen. Eta orduan, ez balira belaza dira” (18). Atzera berriz beharko genuke Axularren elea gogoraerazi! “...euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak” (19).

Bernardo Atxagak ere irail honetako *Argian*: *Obabakoak* obraren gaineko itaunei erantzunez dio: “Askotan esan duk euskarak edo euskal literaturak ez duela tradiziorik. Baina nik ikusten diat euskarak baduela tradizio hori. Egon direla klasikoak, egon direla elizako gizonak sermoiak egin dituztenak, eta nolabait osatu dela hizkera literario bat” (20).

Hartzen dugun testua hartzen dugula, balirudike ziurtasuna behar denean erdarara jotzen dela. Hizkuntzak eskaintzen dituen aukera desberdinetan, erdararen parekoak dirau bizirik. Erdal munduan murgildurik garenean bizi, anitz forma jator baztertzen da, direlako ezezagunak edo ez seguruak, nahi baino maizago erdararen oso kideko diskurtsoa taiutuz. Gosea daukat/gose naiz gisa-koak baldin baditugu bigarrena ateraz galtzaile. Literaturako liburuetan beldur gara sarri: zuzen dagokeen; euskararen ikuskeratik idatzia datekeen edo tradiziotikako kutsurik somatzen ote zaion. Frankotan, askoren iturri zein itsasoa gramatikara mugatzen dela ohartzten gara, eta ondorioz, idazle gutxiren idazlumari dario-la goxotasun berezkoa. “Porque, como decía Quintiliano, una cosa es escribir gramaticalmente y otra escribir latinamente” (E. Basabe, *M.E.L.*, Fax, 9. orr.). Edo euskaraz pentsatzen da edo ez dago idazle onik.

Dotore idazteko, gure letretako doktore haundiak ezagutu behar dira; zuzen idazteko gramatika jakin behar da; gure mintzairari dagokion gurpila emateko euskalkietatik edateko premian gaude.

Zuzen behar da idatzi, artez berba egin behar da ETBn. Literaturan bilatzen ez dugunaren bila goaz teleberrietara, non, tamalez, mezua jaso ordez “ura ardotan bihurtu”ren tankerakoak belarriratzean euskararen bertan gelditzen garen.

Modu horretan, Errusiako formalistek desautomatizazioa deitzen zutena ematen da entzulearengan. Haiek, baina, desautomatizazioa literaturan bilatzen zuten. Guk, eguneroko solasaldi zein elkarrizketetan automatizazioa behar dugu. Ahoskatzen ditugun berbek ez digute atentziorik deitzen. Eguneroko hizkeran, izendatzen ditugun gauzak dira interesgarri, mezua da nahi duguna. Horrexek dakar hizkuntza automatizatzea, zeren zeinua eta errealtatearen arteko lotura, ohituraz, betirik ezagun baitzaizkigu. Egunerokoa automatiko jasotzen baitugu. "Literatura y cine"n V. Skloosvski-k ele argiz adierazten zigun fenomeno hau: "La gente que vive en la costa, llega a acostumbrarse tanto al murmullo de las olas que ya ni siquiera las oye. Por la misma razón apenas oímos nosotros las palabras que proferimos" (21). Hori da Axularrengan, hots, literaturan ez bezala, EITBrako eskatzen duguna. Beste hitzez, hizkuntzaren standardizazioa.

Gure artean, ordea, euskara batuaren garaikook genekarren batasunerako espiritua gibelera lagata, nor bere etxeko euskara goxuz balirau, alfer-alferrik lirake hizkuntzari buruzko mailak eta estilistikazko koplak. "Guziok dugu non ikas. Izan gaitzen apal. Nork bere probintziako euskara ezertan edukitzea on da. Beste propintzietako euskarak guk galdu ditugun aberastasunak gorde dituela sinets dezagun, ordea" (22) idazten du Gotzon Garate idazleak.

Horrekin aski ez bada, hara Mitxelena jakintsuak: "Ez da hau gure euskara, esango duzu apika. Egia diozu: ez da ez gaurkoa ez hemengoa. Oroi zaitetz, ordea, euskara ez dela, maiz, oker baldin bada ere uste dugun bezala, gure etxeko hizkera, ez gure herrikoa ezta gure eskualdekoa ere. Gehixeago da euskara, Jaunari eskerrak, eta zorigaiztokoak gu inguruko mendietatik harantz begiak luzatzen ez baditugu" (23).

3. Pedro Agerre Azpilikueta

Aita Villasanteren *Bibliografía axulariana* (24) ezagutzen duenak, baduke asko gairik gure antzinean arakatzeko. Nahiz eta Joannes Etcheberri, jadanik 1712an kexatzen zen Axularren memoria bertan behera edukitzeaz, bi mende geroago Julio de Urquijo kexu zen bezala, Pedro de Axularren eragina nahiz hari buruzko lanak ugari dira gaurdaino. Guztietarik hustiratu naiz, Euskaltzaindiko Literatur Batzordearen gidaritzapena, Aita Villasanteren itzalean, Deustuko Unibertsitateko tesinetatik Mitxelena maisuarenganainoko ekarpen erabat baliozkoetz baliaturik.

"Hunc librum de non procrastinanda poenitentia auctore Domino Petro de Axular, viro magni nominis in nostra Cantabria" zioen baimena ematerakoan Salvatus de Dissaneche-ek (25). Tovar jaunak "El más grande prosista vasco" deitzen du Axular eta horrela, baina zer dela eta luzatu? Diodana eta gehiago, are oraindik zabal nhaiz txukunago Aita Villasanteren *Axular: Mendea, gizona, liburua* obran topatuko duzue (26).

"Axularren berri era bitan datorkigula diosku Aita Barandiaranek, bere idazkien bidez eta bere izen eta oroitzapenari itsatsiak dabiltzan ipuinen bidez" (27).

Satrustegi jaunak dioenez ipuinen bidez heldu zaigun, gure folkloreko giza-sorginetarikoa dugu. Aita Villasantek dakar "Atarrabio eta Axular... beren jakita-

te harrigarriagatik gure ipuinetako izaki bihurtu direnak“ (28). Aita Barandiaran-ek jaso zigun ipuinean dator: “Axularren gibeletik bere itzala baitzen, deabrua Atxularren itzalarekin geratu omen zen” (29).

Axularren obra egoera onean heldu zaigu. Bordeleko G. Milanges jaun inprimatzaileak gaur Bilbon edo Iruñean egiten dituzten baino huts gutxiago egin zuen, gaurko moldiztegiatarako bezain arrotz zen hizkuntzan. Lehen argitarapena aurkigaitza edo bigarrena ugariagoa dela saihetsera utzita, guk, zorionez, 3 mendetan 3 argitaraldi soilik atera ondoren, badauzkagu 1954ko Lekuona jaunarenetik hasirik, Aita Villasanteren 1964.ekoa, Juan Flors-ek Bartzelonan argitaratua eta **Jakinek** 1976an eder, dotore eta horniturik jendarteratua.

4. *Geroko prosari darion balioa*

Ustekabeko adeitasuna erakutsi zidan aita Villasante Euskaltzainburuak, 1987.eko Maiatzaren 25ean ahoz zuzenduriko itaunari erantzun zionean gutunez, non, besteren artean, adierazten zidan Axularren prosa egiteko moldea dela eta: “Bada-kizu, Sartaldeko hizkuntza landu guztietan badela prosa egiteko modu bat funtsean berdintsua dena. Grezia izan zen prosamodu horren sortzailea; gero Erromak hartu zuen eta latinaren bidez Sartaldeko hizkuntza landu guztietara zabaldu zen. Euskal literatura zaharra ere bide beretik doa, eta batez ere Axular, ene ustez. Gero, berriz, Purismoaren eraginez eta herrizaletasunaren izenean tradizio hori hautsi egin zen, baina hori gure kalterako izan da. Oraindik euskarak prosa egiteko moldea egin gabe dauka, neurri handi batean behintzat, bere tradizio zaharretik aldendu egin zelako. Ene ustez, tradizio horrekin lotzea eta elkartzea —ez gauza denetan, baina bai funtsezkoetan—, izango da bidea”.

Eskutitz berean, Mitxelena jaunak Arantzazuko Biltzar famatuan —1968koan— esan zituen hitz jakingarrietara nigorra: “Bestela eta erabateko esanik, Sartaldeko hizkuntzetako prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, goragokorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, gure hizkuntza.

Ibilbide horiek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zailuago, malguago bihurtu dute. Euskaldunok ez dugu, herrigaietan izan ezik, kultura berezirik: mendeko gara, kulturabarruti horretan bizi gara. Ezin izan dezakegu, beraz askatasunik hizkuntzaren aldetik: askatasun hori erdiets zitekean VIIIgarren mendean, XIIIgarrenean eta XVIgarrenean erent bai oraindik, agian, ez, ordea, oraingoan eta are gutxiago hurrengoan. Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onhar dezagun, eta goazen aurrera bide horretatik.

Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batekoa ez batena, nazio artekoa baizik: B. L. Worf-ek “standard average European” deitu zuena... “Euskal usaina”, “euskal kutsua” deritzatena ongi dago, noski euskal gaiak darabiltzagunean, Euskal Herriko mendigiroa irakurleari sumarazi nahi diogunean. Hortik kanpora, ordea, badirudi ur garbiaren pare behar duela izan behar bezalako prosak: inongo usanik, kolorerik eta zaporerik gabea” (30). Hiztegia eta alde batera utzirik, argi dezagun adibidez baliaturik, prosari buruz arestion esan-

dakoa. Sintaxian ere honelako zerbait badugu. Europan latin joskerak eta horren araberako frase luzeak eta hipotaxi ugari erabiltzen hasten da Ciceronen moldeei lotu nahiz. Salustioi, esate baterako, honako esaldi hau eskaintzen digu: “Nam fere quem quisque in pugnando locum ceperat, eum amissa anima corpore tegebat”. Berau gaztelaniara hitzez hitz itzuliz gero honelako zerbait genuke: “pues aproximadamente el que cada uno luchando lugar había tomado, aquél, perdida la vida, con el cuerpo cubría”. “Eta nork burrukan zein leku hartu baitzuen, ia hura bera estaltzen zuen, bizia galdurik, gorputzez”. Honelako joskerak arrakasta miragarria izan zuten beste hizkeretan, eta denak hauen arabera idazten hasi ziren. Eta Mendebaleko zibilizazioa sintaxi honen bidez itzuli denez gero, beronen mendean ziren hizkuntza guztiak bortxatuak zeuden molde haue-tara makurtzera K.M., Z.H. 134. orr.

Gure prosamodua egin gabe dagoela diogunean, zer adierazi nahi dugu. Ez hizkuntzaren egituretan aurrerapenik edo atzerapenik nabari den, hizkuntza bat egokitua edo egokitu gabea egon daitekeela momentu jakin batean, eta gurea egokitzeke dagoela.

Hara berau Axularren berba ederretan:

“Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak”. A. G., o.c., 10.1.

Andolin Eguzkitza irakasleak ere berrikitan idatzi du: “kasu horretan, (antzerkiarenean) agian kontuz ibil daiteke Mungiako pertsonaia bat zuberoraz egiten ez jartzeko. Baina zergatik mugatu behar dugu japoniar, beltz edo finlandes baten berba egiteko modua? Nork dio artifiziala dela kaliforniar sopistikatu batek euskaraz, edo halako euskaran bestean barik egitea artifiziala dela?” (31).

Hara Axularren prosari darion balioa; horra Sarakoaren prosa egiteko molde-a ikertu ondoren guk zer behar dugun ibili, hura dela medio Europarekin lotzeko.

5. *Geroren sekretua bilatzeko ildo zenbait*

5.1. Axularren inguruan eraikiz etorri den misteriozko aureola, hari buruzko datu biograpikoen urritasunean ote datza? Ezetz dirudi! Seguru asko, Sarako erretoraren bizitzari buruzko gertakari berri aunintz aurki bagenitza ere, aureola horrek ez luke dizdirarik galduko. Ez du guk ez dakigunak harenganako miresmena sortzen, hari buruz dakigunak baino, hau da, haren *Gerok*.

Idatzobrak osotzen duen corpusaren gibelean bada, dena den, ezagut ez dezakegunik: “...queda todo un rico caudal oculto que nunca podrá aflorar: el de los términos que Axular pudo haber escogido y no escogió y el —probablemente más numeroso—, de los que nunca se le ocurrió utilizar en esa obra” (32) Koldo Mitxelenaren hitzak.

5.2. Axularren obrak, euskal literatura osoko berezitasun, dohain nahiz zama daramatza bizkar gainean.

Euskarak, bere tamaina dela medio, ez du gehiegizko hedadurarik izan, ez lurrez, ez hiltunez eta ez literatura obraz ere.

Gainerako mintzairerkin erka bageneza “...gaiaren ugaritasunak edo urritasunak ematen dio jendeari, nik uste, eskubidea literaturaren kondairan sartzeko edo literaturaren kondairatik ateratzeko. Gurean kontutan hartzen dugun zenbait obra—besteetan aberatsago baitabilta—, kanpoan geratuko liriateke” (33).

5.3. Baliteke, Axularrek Quintilianogandikako erretorika klasikoa ezaguturik, hizkera arrunta ordezkatu behar zuenez, hizkera arrunt horren pareko hizkera erretorikoa sortzea.

Dena den, kulturadun idazlea zelarik, kultur hizkuntzetatik mailegaturiko hitz eta sintaxia ere ematen dizkigu.

“Klasikoen idealen artean, estiloari dagokionez, oreka eta simetria daude retorika klasikoak oso maite zituen periodo eta klausula periodikoak, periodoe-tan subordinazioz lotutako esaldiak” (34).

“Beren hizkuntzak garai horretan asko aberastu, trebatu eta gaitu zirelakoan daude Europako jende guztiak” (35). Beraz, zergatik ez gu Axularrekin?

5.4. “Pues cuando en el arte se ha alcanzado un determinado nivel, hay dos clases de grandeza que considerar: no sólo la del artista, sino la del hombre” (36).

“Vigilate itaque, quia nescitis diem neque horam” (Mat. 25). Zaudete prestik eta iratzaririk, zeren eztaizue eguna eta ez oreka” (37). Artergatuta, eskarmentaturik dagoke Axular, hamaika hilzoriko oheburuan laguntzerakoan, ikusiz nola duten sufritzen geroa bukatu zaielako, eta nahi die ulerterazi ezen geroaren noiz hori ez dutela nork bere eskuan, bai ordea geroaren nolakoa. Eta hain hausnarturik, hain landu eta barneratuta du gaia, ezen “behin eta berriz errepikatzen den liburuan zehar, kapitulu guztietan, kapitulu bakoitzeko adibide anitzetan. Ideia ikuspegi guztietatik azaltzen da, analisi xehe eta luze batez...” (38).

“...c'est meme le seul moyen d'affermir, d'etendre et d'elever ses pensées: plus on leur donnera de substance et de force par la meditation, plus il sera facile ensuite de les realiser par l'expresion” (39). Hots, gero eta pentsamendu hausnartuagoa, orduan eta adierazten errezagoa. Hauxe zenuke entzule, Sarakoari gertaturikoa.

5.5. Ez dezagun ahantz, Axularrek, elaberri poliziakoan tankeran, gerotik idazten digula. Bukatzeaz du bizitza gure idazleak eta azken fin horretatik hasten zaigu ordurartekoa aztertzeko. “Neure mendean anhitz ikusi dut halakorik” (40) Amaiera heltzean, badaki gerotik gerora ibiltzeak zer ondorio ekarri dion eta ekar diezaiokeen gizasemeari. Nolabaiteko kontrastasunean ematen digu obra. Federico Krutwig jaunak Joankizuna deitzen duen aroan gauzatzen da idazlana. Joankizunaren gainean, bizitzan ezagutu izan duenean oinarriturik idazten du *Gero*, etorkizunekoentzat, gero hori oraindik bizitzeke dutenentzat. Orduko nahiz gaurko liburuaran irakurleontzat. Axularrek joankizun propioan oinarritutako liburua da etorkizunerako *Gero*, bai asketikean bai literaturgintzako estiloan ere.

Axularrek idazten duenean, badaki giza espirituak ezin duela deus ere sort eskarmentuaren eta meditazioaren eraginez baizen. Erretorikaren porazoz edo

bizitza luzean landu zuelako, argi dagoena da laurogeietan bere-berea zuela Sarakoak *Geron* damaigun prosa hori.

Aipatu dugu, Axularrek ezin sakonago ezagutzen duela pertsona, pertsona eta natura. Klasikoetatik hasi eta egunotararte poesiak, historiak eta filosofiak landu, kontatu eta kantatu duten objektua. Axular ez dagoke arazo zenbaitetan gugandik hain urrun. Ez litzateke gehiegikeria, behar bada, bere garaiko izaeraren, tasunen mugak gainditu egin dituela baiezteza, agian sasoi guztietako bilakatu. Eta hori, seguru asko, Axular intelektual zelako, intelektual baina aintzinako hitzaren zentzuan, alegia, ikusmira unibertsalean finkatua, zeinak definizioz beti dirauen presente.

Ez gara, nik uste, Axularren irakurle, letretan saiatuak edo XX. mendeko liburu girokoak garelako, gizon eta emakume garelako baizik. “Eta Axularrek bere kideei esaten zienak badu oraindik ere indar eta mami. Gizona eta gizartea ederki ezagutzen zituen... Ez baita bizpahiru lagun elizkoirentzat bakarrik ari guztiontzat baizik: ordukoentzat eta gaurkoentzat” (41).

5.6. Urrun gara Axularrengandik, baina Axularrek ere, Erdiarokoek ez bezala, eta gure antzera onartzen du fortunaren rolea. “Ethorkizuneko gauzak fortunaren eskuan eta benturan daudezinak” (42).

Axular Renaissance-eko seme da, humanismoaren lilurapean bizi da, eta arrazoa mundu honetara mugatu gabe, Jainkoaren jokamoldeak justifikatzeari ere ekiten dio: “Arrazoiñaz usatzea, arrazoiñaz baliatzea” (43) “Arrazoiñ naturalaren arauaz bederen bizitzera” (44).

5.7. Axularrek XX. mendeko irakurleoi nola igortzen digun mezua hausnar-tzerakoan, kontrarreformaren xede kateketikoa, jite pedagogikoa, konbentzitzera zuzentzen duen argumentazioa ezaguturik azpimarratu egin beharko dugu, artearen benetako funtzioa ez dela didaktikoa. Idazlan ederrak, elaberriak, poemak, irakaspen didaktiko asko edo gutxi eduki ditzake, baina bere helburua lortzeko ez ditu irakaspen horiek aintzat hartzen.

Artearen benetako helburua, jatorrizkoa, sekretuak azalratzea da, ez horrela, beste gabe, ezaguteraziz, eskainiz baino, nolabait esateko eskua erdi irekirik, gugandik hurbil jarririk eta sekretuotara hurbil gaitzezen gonbidatuz.

“...y el arte verdaderamente inspirado es, en efecto, una suerte de magia blanca que hechiza al hombre y lo transforma momentáneamente, llevando a cabo, por decirlo así, lo imposible y haciendo que el hombre, literalmente se supere a sí mismo” (45).

5.8. Gaur, apika, saildu bilaka gaitzezen, Axularrek ematen dizkigun arrazona-mendu eta argumentuak baino, atseginago duke Axularren erlijio berekoak ere, berez eder delako saildu ageri zaion kosmoaren ikuste moldea.

5.9. Hitz batez, Pedro Agerrreren *Gero* ulertzeko jakin dezagun, ez historian ez eta bizitzan ez daukagula ikuspegi orokorrik. Zatiak eta atalak baino ikusten ez ditugunez, gure ikuspegia deformaturik dagoela oso. Ohar gaitzezen, gugandik hurbil dagoenari pasioz beterik so egiten diogula; Axular bezala aintzinean dagoenari objektibotasun hotzagoz begiraturik. Ez dezagun, baina, sekula pentsa, modelo orokorra ikusten dugunak geu garenik.

H.R. Jauss-ek *Estética de la recepción* delakoan planteatzen dituen tesietan, laugarrenak zera dio: “La cuarta tesis atiende a la necesidad de que los estudios literarios reconstruyan las preguntas a la que el texto contestó, y entender así cómo el lector de antaño pudo interpretar la obra. En definitiva, una historia de la recepción literaria como historia de la literatura que evite el dogma platónico de la metafísica filológica, según el cual la poesía está eternamente presente en el texto literario y su sentido objetivo es accesible al intérprete” (46).

BIGARREN PARTEA

Determinatzaileak Axularren estiloan

Jarraiko lerroetan Mugatzaile, Zenbatzaile eta Nolakotzaileei buruz arituko naiz. Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen liburuei jarraitzen natzaizen arren, gauza bera esateko era bi edo gehiagotan ematen diren kasuak bakarrik aztertuko ditut. Zeren ideia bera, bi modu edo gehiagoz adieraztean mintza baigaitzke estiloaz. Lasatarren etxea sutan dago diodanean, ezin dudanez suan esan, hor ez da estilorik, estilorako biderik, ezen suan/sutan bi ideia dira eta.

Estiloa, posibilitate desberdinetarik bat hautatzen dugunean gauzatzen dela irakasten digu F. Krutwigek (47).

Hari beretik, Gotzon Garatek: “Ez da ene asmoa estilistika libururik idaztea ere. Halabaina, maiz gauza beretsua molde askotara esan litekeela ikusiko du aztertzaileak. Estilistika bidean, nolabait ere, urrats batzuk egingo ditu hortaz axoldurik dagoenak” (48).

Beti ere, determinatzaileez baliaturik lor daitezkeen baliabideak bakarrik ikuskatzen dira, zeren eta, idazleak determinatzaileek eskaintzen dioten jokotik ihes eginik ere idatz baitezake, etxea sutan/suan dago adierazi ordez, erabil dezake etxea erretzen dago, -n, -z kasuek har dezaketen adberbio antzeko balioaz jokatu beharrean, puntu hori saihetsera lagata.

Has gaitezen mugatzaileen arloan artikuluekin: Egin diezaiegun so -a edo erakuslerik azaltzen ez den kasuei.

Zer ekarri dakarke arlo honek estilorako? Zu zeu, betiko euskaldunarengana inkestabidezko galderak egitera hurbil bazintez, “Nekez jasoko duzu entzun ditzakegun erantzunetan, klase bateko zein besteko artikulurik ez daraman izenik edo izen sintagmarik. Salbuespenak salbu, jakina, gertatu ohi zen bezala. Izene-tan Seme! eta horren antzeko deigarriak... Baita zenbait berez mugagabe diren hitz ere, ...zenbait, nornahi... Baita, ..., maiz soilik aditzen diren partizipioak: aditu, erabili,...” (49).

Hain da hau horrela non Garibay-k XVI. mendean berba guztiak -a-z bukatzen zirela zioen. “Advierte-se que todos los hombres sustantivos y adjetivos de la lengua de Vizcaya se acaban en A y sus plurales en AC...” (50).

“Izan ere gure hizkuntzan substantiboa, adjektiboa, gramatikazko numerorik gabeak dira, hizkuntza indoeuropeoz ari garela ulertzen denari bagagozkio, eta baita genero eta kasu gabeak ere, eta arrazoi horregatik ez da posible komunzadurarik garatzea izen haien eta izen sintagma osotzen duten elementu desberdinen artean.

Hala ere, erakusleek historikoki singularraren eta pluralaren arteko oposizioa dutela agertzen baitira, hauetan oinarri harturik euskal artikulua sortu dira, alboko hizkuntza erromanikoetan paraleloki gertatu den erara...” (51)

Menderik mende eredu erromanikoen pareko garapena gero eta nabarmena bilakatu da. Eta bai hitz soil nahiz sintagma gero eta maizago determinatzen ditugu euskaldunok, jadanik XVI. mendetik behintzat. Halere, gaurko, betiko, euskaldunaren ahoan aurkituko ditugu determinatu gabeko izen zintagmak.

Maisu dugu Axular, hizkuntzaren morfologiaz eta sintaxizko gaitasun ezkutuiegin bide poetikoa ematen. Hara pasarte honetan: “...eta elizari, erregeri eta komun guztiari, anhitz okhasinotan egin derauztetzun zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anhitz donu-, dohain-, eta abantail- suertez dotatu-, hornituta konplitu- baitzatu. Adimendu eder *bat*, memoria handi *bat* eta borondate onera, ohorera, eta prestutasunera erori *bat*, isuri *bat*, eta eman *bat* eman baiteratzu” (52).

Ia besterik gabe, asko lan izango genuke determinatzaileez osaturiko pasarte hau aztertzen. Ez du idazlearen eskuak ohartu gabean hori moldatzen. “Axular que cuidaba mucho la gramática y no solamente el estilo” (53) badaki Axularrek pasarte berean mugatzailez eta zenbatzailez baliatzen, badakien moduan artikulua, *bat* zenbatzailearekin nahiz erakuslearekin ordezkari daitekeela; ez ditu ahanzten maiz soilik —determinatzaile gabe— aditzen diren partizipioak. Bada hemen —oraingoz alde batetara utzi arren—, beste figura aipagarrikeri ere, polisindetona esatebaterako: “...eta borondate, ...eta ...eta” Axularrek, aski luke pasarte bakan honekin formaren, errekurtsoen estiloaren lantzen ari dela erakusteko. Geroago egingo dugu pasarte horren irazkina.

Gu, hemen, Axularrengan finkatuko bagara ere, ez da besteren lanik saihestu nahi genukeelako, metodoagatik baizik. Ezen, adibidez, Lizardiren gutun sorta —benetan ugaria— azter dezanak, errez topatuko baititu Koldo Mitxelena **deigarriak** edo M. Lekuona jaunak deikiak izendatzen dituenetarikoa errekurtsu gisara erabilirik: Lizardik. 1930.ean Elortzatar Juliani: Jaun agurgarri ta euskaltzale bikain (54) Hurrengoan, ostera, “Jaun ta aberkide agurgarria” eta abar erabiliz.

Ibil gaitezen atalik atal:

I. Mugatzaileak

1. Artikulua

Ez -a, edo erakuslerik azaltzen ez zaigunean:

1.1. Eman, egin, hartu aditzekin elkartzen ditugun izenak: min eman didazu; gogor lan egiten du.

Axularrek: kontu egizu, kontu eman, mendeku hartu, okhasino hartu eta abar ugari darabil. Halere, ederki bereizten ditu: ohore ekharri baina ohorea ukitu, guk kontu egizu baina kontua egizu, kontua eman baina kontu eman; gogoz lan egin baina lana gogoz egin eta abar bereizi behar genituzkeen modura.

Egun, mugatuta bakarrik erabiltzen da maiz, eta nekez ohartzen gara determinatuta nahiz determinatu gaberik, ideia bera adierazten dutenean, hor gorderik datzan balore estilistikoaz.

1.2. Perpaus batetan bi izen sintagma nor kasuan ditugunean, bietarik bat predikatu osagarria delarik.

Axularrek: Etsai bihurtzen da. Guk ere Etsaia etsai bilakatu zaigu edo antzerakoak erabili behar ditugu.

Euskal Telebistan, halere, ura ardotan bihurtu eta antzerakoak entzun bage-nitza, gazteleraren kalko direla jakinik, guk euskarak duen forma jatorra erabiliko genuke; eta ahozko berbetan behin eta berriz entzutea gertatuko balitz, argotzat edo beherengo mailako hizkeratzat hartuko genuke.

Beti ere hemen kontuz! “Baina jakina baino jakinagoa da hizkuntza batean, nahiz erabilten diren hitzak hizkuntza horretakoak diren, ez dela edozein hitz andana ontzat hartzen: hau euskara da eusdara da; hau da euskara ere bai, orobat euskara da hau eta euskara hau da. Da hau euskara eta da euskara hau, berriz, euskal gaito dira” K.M. Z.H. 81. orri.

1.3. Adjektiboa, atributu (predikatu) funtzioa betetzen duenean ere mugatzaile gabe erabil daiteke nahiz mugatzailez. Estiloa, dena dela bitzuan erabile-ra sortzailetik etor badadi ere, goragokotzat dugu, berez, eder da, on da esatea, ederra da eta ona da-ren ondoan. Halere, Axularren erabileran ikus dezakegu-nez, ez da hobe ez txarragorik, idazlearen eskuan, tokian tokiko errekurto so bilakutzen da.

Atal honetan Alfonso Irigoyen jaunaren lanari lotuko naitzaio: (55) “Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinela, eta begiraille bezala, iratzaririk dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme” (56). Gaurko joera testuinguru horretan **semeA**, artikuluz erabiltzea bada ere, artikulurik gabe behin, artikularekin hurrengoan erabiltzea oso baliabide azkarra gerta daiteke Axularrek darakuskigunez. Begira orain artikuludun perpausa: “Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua, eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa” (57).

Oraingo honetan predikatu nominalek artikulua daramate, zu-rekin konkordantzia, singular balioaz.

Hari beretik dabil partizipioa funtzio predikatiboan doanean, partizipioa komunz-tadurazko artikularekin daukagunean. “Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundainoz gero, erregez empletatuak, estimatuak, fin eta leial frogatuak” (58) Hemen, hizkuntza erromanikoetako pasiboa hartzen da eredutzat.

Horrela badugu aukera estilorako: mutikoa etorria da/mutikoa etorri da; mutikoa etorriak dira/mutikoa etorri dira, non etorri artikulua gabe nahiz singu-

larrarekin nahiz pluralean joan daitekeen. Zuberoan Joanik da esaten baldin bada, gure adibidera egokiturik mutikoa etorririk da ere idatz lezake norbaitek estilo bidean.

1.3.2. Zenbait kasutan geratu diren forma bikoitzak, ñabardura bereziak adieraztera heldu dira. Horrela: “hobe da ez egitea” baina “hobea da bestea baino”. Gaur, ordea, lehen formarako ere artikulua erabiltzeko joera dagoenez, hizkuntza murriztu egiten da. Horrez gainera, erabilera murriztailearen kausaz, hobe izan, hobeko dugu, aditz multzotzat hartu beharrean, artikulua ezartzean, ez dira maiz bereizten “hobe izango dugu horrela” edo “hobea izango dugu horrela” moduko perpausak.

Leizarragak, kasurako, “Ahanz cequien ogui hartzera” (Mat. 16, 5) dakar. Gaur, berriz, ogia jan, bai comer pan nahiz comer el pan ulertuko genuke baiezeko perpausetan.

Ezezkoetan zein galderetan argi daukagu ogia ez du jan baina ogirik ez du jan, non bigarreanean, ogirik sintagma mugatzailerik gabea den. Ogirik ez du erosi honetan euskarak ez du informaziorik emanten, pan ala panes den.

Arlo honetan- hizkera mintzatuaz ari naiz gehienbat-, bada nahasketa, ezen mugatzaile kolektiboek komuneztadura ad sensum eginik plurala ere har dezakete: gizon asko etorri da, zein dira; ez, ostera, ez ditut sagarrik jan irakaskuntzan irakasle direnen ahotan ere entzun dezakezun forma.

Estilistak, begi zuhurrez egin beharko lieke so Alfonso Irigoyen irakasleak *De re philologica linguae basconicaen* dakartzan mugatzailerik gabeko izen sintagmei: Esaterako, Oihenarterenaren tankerakoak “Harri erabilic estu biltzen oroldiric”.

Horrez gain, Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, hetzaz, zare, saski eta otharre egiten haritzen zela (60).

Zare, saski eta otharre, objektu zuzen dira hor. Hiru motatako dira. Gainera, ohituraz egiten ari dena saskilabarra ez da, baina gramatikalki determinaziorik gabea da ohitura aldetik.

Tresna egokiaz, gaur testu irazkinari buruz dakigunaz hurbilduko bagintzaizkio Axularri, aberastasun kalkulagaitza gaureganatuko genuke estiliorako. Eta, ondorioz, gramatikan, hala balirako muga hestuak jarri ditugunean, idazbide oso zabalekin topatuko ginateke.

1.3.3. Arlo honekin amaitzeko badira, garijotea moduko forma lexikalizatuak deslexikaliza genitzakeenak: jende jotzen dabil, erropa saltzen ibiltzen da (erropak saltzen ibiltzen da) eta abar luze aberatsa literaturatzeko.

1.3.4. Era berean, determinantea beste izen sintagma batek osotzan duenean: lau litro ardo beltz, bost botila txakolin zuri nondik erakar baigenitzake, bost horrelako Euskaltzaindi ez lirateke nahiko, eta tankerako ugari.

1.4. -n eta -z kasu markak hartzen dituzten izen soilez osotuak daudenean batipat, badirudi adberbio antzeko balioa hartzen dutela.

- (199) “Amerrikarrak ilargian izan dira”
 “Atzo gauean ilargitan ibili nintzen”.

Horretarako: suan/sutan; kean/ketan; urean/uretan bereizketa aberasgarriak eskaintzen dizkigu hizkuntzak.

Leizarragak G“ehennako sura” darabilen eran, Axularrek “Baiña uretik ezta gelditzen kutsurik, eta ez usainik” (62)

Hizkuntzak idazleari eskaintzen dizkion posibilitateetan garrantzizkoa da hau estilo sortzeko.

Itsasoa elementutzat harturik uretan esan ohi dugu, baina Mediterraneoko urean sartu duzu pilula? Hemen, bata ala bertzea aukeratzeaz baino bien erabile-
 ran saiatu beharraz mintzatzen gara.

Hara ene amaren ahotik Irail honen 11an Mungian jasotako esaldia: “Handi goiti urera da gure basoa” Baita urean, e.a. Beraz, estilistikarako zein euskalkita-
 koa den berdin zaigun arren, ezin idatz daiteke Euskaltzaindiko *Euskal Gramatika*n-
 kasu marka hartzen duten izen sintagmetan Nafarroan egiten dutela bereizketa
 (63).

2. Erakusleak

Izen sintagmek mugatzailea edo erakuslea eraman behar dutenean:

2.1. Esango zaigu gramatika: mugatzaile nahiz erakusleei izen sintagmen eskuineko muturra dagokie eta mugatzaile edo erakuslea sintagma osoari dagokio.

Guk, estiloaren hariari jarraiki eta maisu handiez gain euskaldun betikoari belarri emanik noiznahi entzun dezakegu erakusle hori ezkerrean ere: Hau liburua ez da aurtengoa.

Hara Axularrek: “Hauetzaz guztioz eskatuko zaizu kontu” (64).

Mitxelena jaunaren *Idazlan hautatuak* liburura hurbil bazintez aurkituko duzu: “Nere iritzikoak direnentzat ere, ordea barkakizun da hau guztia” (65).

Mugatzailea genitibo kasuan erabiltzetik ere estilorako hautabideak ugari dira:

Gramatikaren arabera “Horren kotxea estorbuan dago” idatziko genuke bai-
 na neuk jaso ohi ditut honelakoak “Kotxe horrena dago estorbuan”.

“Maritxu nora zoaz eder galantori”. Kanta honetan, -ori elementuak ez du ezer seinatzen. Izen sintagma horrek eskatzen duen artikulua baizik ez da. Alde honetatik esan dezakegu erakusle bakoitza bilaka daitekeela (eta bilakatu dela) artikulua (66).

Honelakoetan erabil ditzakegu erakusle hauek artikulua modura:

- a) Erlatibozko perpausetan, lehen edo bigarren pertsona singularrari badagozkio.
 (236) “Hainbeste bidegabekeria egin duzun orrek ez duzu errukirik merezi”.

b) Erlatiboaren pareko egituretan:

“Nik kokolorrek”

“Zuk txarriorrek”

c) Pertsonari lotugabe ere azal daiteke, baina aurretik gradu bereko erakuslea doan neurrian.

(238) “Hau etxeau benetan ere polita da”

Baina idazleak, hemen zehatz eta zorrotzago ere jokatu beharko luke ñabar-durak adieraztean, ezen Federiko Krutwig irakasleak azaldu zidanez hungarieraz “hau etxe” erakoa erabili ohi dute eta euskaldunon kasuan, sumerioenaren moduan gero eskuinera eraman dugu erakuslea. Ondorioz, agian, forma zaharra-goia espezializatu egin zitekeen:

“Hau, etxeau” Horrela, etxeau aposizio moduan agertuko litzaiguke, “Nire seme, etxean dagoena” perpausan agertzen den moduan.

Nire ustez, badu idazleak hemen:

etxe hau, etxeau nahiz hau etxeau form ekin jokatzeke parada paregabea.

Guk –testu irazkina eginik–, Maritxuren koplan eder hori, galant hori..., ezarriko bagenu, hots, mugatzailea berraipa bageneza, adjektibo bakoitza zenbaterakoan, adjektibook sakabanatu egingo genituzke elkarrengandik, bakoitzean tarte luzeagoa finkaturik, batetik adierazkorrago bilakatuta, eta bestetik astiro-tasun, geldotasun mentala azpimarratzen dela.

2.2. Derminatzailea zenbatzaile denean, izen sintagmak (+ plural) nahiz (–plural) bezala har daitezke, komunztaduran ikus daitekeenez:

(209) “Hiru liburu irakurri dut”

“Hiru liburu irakurri ditut”.

Patxi Altuna jaunak Koldo Mitxelenaren *Idazlan Hautatuak* liburuaren sarrean: “Horregatik oso aspaldidanik –betidanik?– dituzu euskaraz “lau pastila hartu ditut” eta “lau pastila hartu dut” edo antzekorik esaten dutenak, bata gramatikaren arabera, bestea zentzuaren arabera taxutuak” (67).

Hara Axularrek “Hirur bekhatu edo bekhatore suerte gaitzesteintut” (68).

Estilistikoki, zenbait kasutan singularrean bilaka daiteke idazlearentzat markatuago, beste zenbaitetan alderantziz. Adibidea: Batak besteari zor handia diola elkartzan dira eta. “Hori bai, eta beste 20 milioiak”? “Ekarri dut”. Hemen 20 milioien erantzuna singularrean entzun dezanak ez luke komunztadura mota horretatik lasaitasunik hartuko.

2.3. -a/-ak eta -o/-ok artikulua garatu dira euskaraz, erakusleen garapenetik -o eta -ok lehen eta bigarren graduari dagozkionak, balio dute –pertsonari buruz ari garenean–, bai barnean sartzeko nahiz kanpo uzteko. Idazleen artean, puntu hau ezaguna bada ere, nekez erabiltzen da -a/-ak gradurik gabeak eta -o/-ok gradudunen arteko ñabarduren balio estilistikoa ateratzeko. Bestalde, -a/-ak artikulua determinatuz gainera, singularitasun edo pluralitasuna, beste gabe, adierazte-

ko ere balio dutenez, ez datoz bat euskara eta erromantzeetako artikulua erabilera. Bada gainera -ek aldakia.

Axularrek:

“Hautzaz guztioz eskatuko zaiku kontu”. (69)

Diskurtsoan zehar lehen, bigarren, hirugarren pertsonen definizioarako oso aproposa da baliabide linguistiko hau, bai bertan/bertan; asteen/astean bereizteko edo sentimendu nahiz sufrikarioaren hurbil/urruntasunak, zein leku eta denboraren gertutasun/distanziak zehazteko: Beti ere dakigularik -ok diogun guztietan -ak edo -ek esan dezakegula eta abar.

“Espainolak eta euskaldunok batera dugu historia apur bat nahiz ez den guk aukeratua haiek ezarria baizik”.

Hizkera markatua, literaturgintza moldatzerakoan baliakizun aberatsa da.

Singular hurbila hemen, hizkera bizian, kasu batzutara mugatzen bada ere -asteon...-, berbetarekin estiloa sortu behar duenak balio guztia atera behar dio. Hara Axular: “Orain, denbora aitzinean duzuiño, egizu ahal dagizuna: eta orai ere, instanter, fite presentean” (101)

2.4. Erakusle balioa duten adberbio kategoriako formak ere baditugu hemen/hor/han; hona/horra/hara.

Etxe txakurrari: “hemen”!, “hemen”! dei egiten diogu.

Etxeko seme nahiz halabari ez diozu hemen!, hemen! esango, bai, ordea, “erdu hona”! Txakurra, agian, erdal mundutik dator eta erdaraz mintzatu gatzazkio: “Tomaki txakurra”!, hain zuzen ere joan egin behar duela adierazteko. Katuari, behar bada euskaraz egiten diogu. Idazleak nabardurarik tipitienak bereizteko gai izan behar luke, baldin espiritu fineko izan baledi.

2.5. Gradu bakoitzeko non kasua eta adberbioa ere elkar ditzakegu; baina hiru graduen arteko bereizketa ez da beti gordetzen eta, ondorioz, gradu desberdinetako erakusleak elkartzan ditugu. Konbinaketa honelakoak sor genitzake, zeinek hizkuntzaren genioa darakusten eta nekez itzultzekoak diren:

“Hona hor gure irabazlea”

“Horra hor gure irabazlea”

“Hora hemen gure irabazlea”, eta abar

Hiru konbinaketetan, badu zeinek bere konnotazio propioa. Eta ez dezagun ahantz, Johansen-ek zeinu konnotatiboa eta zeinu estetiko (literarioa) identifikatu egiten dituela (70).

2.6. Zenbatzaile mugagabetzat hartzen ditugunean honelako konbinaketa aberatsak lor ditzakegu:

“Aurrezki Kutxa hartan honek horrenbeste diru zeukanik ez nuen uste”. Beti ere hainbestek erakusle balioa galdu duelarik.

2.7. Honen, horren, hain-ek ere balio seinalatzailea galdu dutelarik, kalitateari dagokionean, gonparazio absolutua adierazteko balio dutenez, baliabide ugari erdiets daiteke: “Ez zuen uste honen, horren, hain eskuabala zenik”.

2.8. Erakusle indartuak: XE

Batetik, orden aldaketa zilegi denez: Bai horixe! Horixe baietz! eta, bestalde, -xe erroari lotuta nahiz kasu-markaren ondoren erabil dezakegunez “Beste barik hartantxe/harexetan joan nintzen” Estilorako idazpidea zabal da.

2.9. BERA erakusle indartua.

Bera-k aurretik doan izena bi bider aipatzen dela adierazten digu (nolabait esateko).

Axularrek: “Errege berari” (71).

“Euskaldunak berek dute falta” (72).

“Berek dira bere buruz asko gora mintzo” (73).

Izen sintagmaren muturrean nahiz izenaren ezkerretara azaltzen da ber: Ber gauza esan/Gauza bera esan. Ber erlatibozko perpaus baten ondoren ere azal daiteke, -(e)n momentuan, -(e)n bakoitzean adierazteko: “Ikusi zintudan ber, ezagutu zintudan”.

Arrazoi funtsezkorik horretarako ez bada ematen ere, idazlegoak baztertua du oso ber horren erabilera.

2.10. Xe eta ber indartzaileak elkaturik aurki ditzakegu “Hauxe berau izan zen gainera” “Horixe berberori da, bai, horixe”.

Aberastasun semantiko handia, konbinaketa oparoak ekar genitzake estilorako.

II. Zenbatzaileak

1. Zenbatzaile zehaztuak.

Zenbatzaile zehaztuak izen sintagmaren ezkerrean jartzen ditugu (270) “Hogeitamar liburu”.

Bat zenbatzailearen parean baditugu biga eta bida aldakiak ere. Guk, sorginen kantetan erabili izan direlarik, ñabardura bereziak adierazteko oso apropos direla deritzogu.

Bestalde —gramatikaren arabera—, sintagma baten barnean ezin dira azaldu, bakarrik agertu behar dute: “Biga etorri ziren”: Eta idazle norbaitek diskurtsuaren indarrez eta inspirazioaren eraginpean biga asto idatz baleza ecart bat sortuko luke.

Ecartok, usadioaren aurka darabiltza idazleak. Gramatikak arautzen dituen morfologiako elementuek erabilera aldaezina eta konbentzionala dute. Horrela loredun hitzari adjektibo kategoria finkoa emango zaio. Hizkerak, ordea, kidetze finko hori hautsi egiten du eta, estilistika, horretaz baliatzen da adierazpena indartzeko. Gramatikari dagokion eginkizuna baino areago doa estilistaren adierazteko gogo zein premia. Aldaketa hauek sortzea idazlearen indibidualitateari dagokio. Paul Valery-k “ecart”, desbideratzea izendatu zuen, gramatikako arauen

borondatezko hausketan. Horrela “hotz naiz”, “bero naiz”, baina idazleak “izerdi naiz” sort lezake.

Dena dela, ez deritzogu zuzen ecart batek berez sortzen duela efektu poetikoa esateari, zeren eguneroko elkarrizketak ere desbideraketaz josirik baitaude.

Oker ez banago, ez da beharrezko, estiloa sortzean gramatikako kategoria nahiz kodifikazioa aldatzea. Gorderik ere, ñabardurarik berezienenak adieraztera hel daiteke idazle ona. Coseriu-ek bait diosku “el lenguaje poético es el lugar donde el lenguaje actualiza todas las posibilidades que tiene a su alcance, la realización de la plenitud funcional” (74).

Ecart-en aldeko teoriaren ondoan, desbideraketen kontrako batena, Coseriu-rena, alegia, proposatzea, honetatik dator: nik honako teoria bakoitzeko elementu nagusiak jaso ditut. Ez dut hartu estadio bat, aurrekoaren gainditze gisa. Ezen ezin daiteke seguru esan eta, aurreratu dugun arren, Aristoteles eta grekoak baino urrunago heldu garenik. Agian, ez gara aurkitzen, ez aitzinatua, ez gibelatua, beste leku batetan baizik. Azken finean, literaturako idazlanari buruz irakurleak duke azken hitza, une bakoitzean.

Hurbil gatzazkion Axularri:

“Aita batek bere semea behin, *biatan*, hiruretan edo hamarretan mehatxatu duenean, ikhusten badu ezteela zenzatzen, ez emendatzen, utzten du, etsitzen du” (75).

“Halako hutsik egiten zuenari *bi* begiak irazi eta athera behar zeitanez geroztik, athera ziazotela aitari berari bere begietarik bata, eta semeari beretarik bestea” (76).

Gauza perilosak dira hauk elkarrekiko, eta bai gizona eta emaztea ere berak bakharrak *bi bian* egiteko” (77).

Euskaldungoan, bi atzetik dela ere maiz erabiltzen denez, pentsa liteke garai batez dual balioa zuela: begi bi, belarri bi, esku bi..., atzetik joanik bikoiztasunean batasun direnean. Federiko Krutwig irakaslearen eritziz, grekoz hala erabili zen sasoi batetan, gero ez. Herodotorekin, Platon baino zaharragoa izanik, galdua zegoen jadanik. Athikoan bakarrik geratu zen. Besteetan oso goiz desagertziz. Suanskritoak ere bazuen duala.

Beraz, halako onura atera diezaiokegu gai honi: bi elementu baina unitate ez direnean “Bi senar-emazte”, hots: hemengo bat eta beste hango bat; “Senar-emazte Bi” elkarrekin ezkonduak unitate dira.

2. Euskal zenbatzaileak:

“60 hirurogei/hiruretan hogeï”

“80 laurogei/lauretan hogeï”

Axularrek dakarrena: “Gure Iaungoikoak eman zituen lege zaharrea seietan ehun eta gehiago manamendu” (78).

Euskararen batasunaren izenean ez da forma bietarik bat zertan txokoratu, nori berea eman baino.

Hjlemslev-ek dioenez. “Veremos cómo la lengua literaria —en tanto uso de signos connotativos— no es “otra” lengua, sino que construye sus contenidos con los materiales expresivos y contenidos propios de los signos denotativos. La lengua literaria tiene a los signos denotativos como sustancia de la expresión” (79).

3. Noiz erabiltzen da bat:

Baten aurrean zenbatzaile bat agertzen zaigunean, -en atzizkia jarri daiteke, edo ez.

(291) “Hirurogeiren bat urte
daramatzagu batasunaren bidean”.

(292) “Hiruegi bat urte daramatzagu
batasunaren bidean”.

Axularrek: “Hamar bat hitz edo baizen” (80).

Idazleak atera diezaioke etekina baliabide honi:

Zenbaki txikietan, adibidez, iluntasuna saihesteko:

“bibat urte izango ditu”,
argiago
“biren bat urte izango ditu” baino;
“hiru bat urte izango ditu”
ulertterezago
“hiruren bat urte izango ditu” baino
eta abar.

4. Bat eta batzuren deklinabidea:

Euskaltzaindiak argitaratutako gramatikan, bi aukera eskaintzen dira, estilistikan ari garelarik hautabiderik oparoen eta bereiztasunetan ugari denaren alde azaltzen naiz, hots:

Mugagabea: batetan, batetako; batzuk, batzurentzat.

Mugatua: batean, bateko; batzuek, batzuentzat dakarren aukeraren alde, eta ez bietan berdin.

Axularrek idatzi zuen:

“*Batean* behar da ihes eginez eta apartatuz garaitu, eta *bertzean* defendatuz, kontra eginez eta borrokatuz” (81).

“Eta gero bizitzen zen bake handi *batetan*” (82).

“Denbora *betetara*ño iraun ahal dezakete, eta ez gehiago” (83).

“Zeren utzirik alde *batetara* zure merezimendu handiak” (84).

“Hau mundu zoroa, ..., oren *batetako* minaz, ...” (85).

5. Bat gabeko zenbakarri batzu:

Zenbaitentzat, izenak zenbakarriak izanik ere, bat gabe ageriko zaizkigu, artikularekin. Hori gertatzen da balio generikoa dutenean, espezie osoa edo kontutan hartzen dugunean:

(b) “*Nekazaria* beti dabil lurrarekin borrokan”.

Gertatzen dena da, euskalki batetan balio generikoa duenak, bestean hiztunak konkretuztat har dezakeela:

(309) “Bart arratsean *azeria* etorri da”.
“Bart arratsean *azeri bat* etorri da”.

Gaur nagusituz doan joera generikotasuna adierazteko bat jartzea da:

azeria etorri da”
azeri bat etorri da.

Idazleak, halere, bat mugatzailea eta -a artikularen oposizioaz, ñabardura aberasgarriak marka ditzake, bai ezagun/ez ezagun oposizioak adierazteko nahiz generikotasun/konkretetasunak zehazteko.

(86) καὶ ἐθαύμαζαν ὅτι μετὰ γυναικὸς ἐλάλει

(87) Eta, mirets cecaten nola emazte batequin minco cen. Izen konkretuetan artikulurik ez jartzeak, hauen izaera eta kualitatea azpimarratzen du, hots izena zentzu kualitatiboan hartzen da (ut tale), ez zentzu indibidualean (ut hoc), modu horretan sintagma nahiz perpausa osoaren ñabardura bat markaturik.

Bestalde, erdaratiko itzulpen zuzenaren aurrean: badaukat buruko min bat!, goragokotzat joko genituzke besteok: “nik dudan buruko mina”!, “hau buruko mina”! e.a. erdaratikoari beherengo maila emanik. Oraindikoan, betiko euskaldunak somatzen du nolabaiteko ñabardura, ezen entzun izan dut, “badut buruko min bat” zioenari bat bakarrik bada ez da haundia erantzuten.

Fenomeno bera:

“Ez dut ardi bat ere aurkitu”.
eta
“Ez dut ardirik aurkitzen artean”.

6. Zenbatzaileari izenondoa eransten diogunean, nola esan behar da:

(338) “Bost litro ardo baino gehiago”,
ala

(339) “Bost litro baino gehiago ardo?”

Axularrek horrela dakar:

“Seietan ehun eta gehiago mandamendu”

Leizarragak honela dakar:

(340) “Hamabi legione baino gehiago aingeru” (89).

Guk kultuagotzat hartuko genuke:

“Bost litro baino gehiago ardo”

7. Gainerako zenbatzaileak:

Bat eta bi zenbakiak alde batera uzten baditugu, gainerakoak izenaren ezker aldean jarri direla baieztatuko dugu. Estilorako, halere, norabide desberdinak eskain daitezke:

“Hiru emakume etorri ziren”

“Emakumeak, hiru etorri ziren”

“Emakume hiru etorri ziren”

Hirugarren perpausa hau, inoiz idazleari darion genioak izkiria dezake, ecart deitua sortzen duela.

8. Sei zenbakia baino txikiago direnekin, hiru modutara adieraz daitezke gutxi gora beheranzko zenbatasuna:

“Bi edo hiru

Bi hiru, edo kendurik

Bizpahiru

Hiruzpalau

Lauzpabortz

Bospasei”

Hara Axularrek:

“Ereiten bihi bakotzak eta biltzen buru beteak, botean *hirur laurak* zituztenak” (90).

Sei zenbakitik goranzko gainerako zenbakiekin edo erabiltzen da:

zazpi edo zortzi...

Idazleak, ondo etorriez gero, edo errez baztertzen ahal du:

“Zazpi zortzi bai egongo ziren nik uste!”

“Zazpi zortzi bat egongo ziren nik uste”!

9. Hurbilezko zenbatasuna bestela ere adieraz daitezke:

(354) “Hogeiren bat

Hogei bat

Hogei lagun hurbil

Hamabi hurren bat

Hogei lagun inguru

Lauretan hogei urte eskas

Hogei eta gehiago gizon

Ehun eta zenbait ardi

Hamar bat hitz edo baizen” (91).

Intuiziodun idazle zuhur, sentiberari baliabide oparoak eskaintzen zaizkio zenbakion arloan.

10. Balio enfatikoak duten zenbatzaileak:

Zenbait zenbatzailek balio enfatikoak du euskaraz, eta plurala adierazteko ere erabiltzen ditugu: Laffitteren gramatikak, bi, bortz, zazpi; hameka, hogitabortz, ehun eta mila aipatzen ditu.

Euskaltzaindiko gramatikatik jasotzen dudana Laffiteri buruzko aipuak dakarrit bapatean, gizabidez bada ere, kritikatu egin behar dudala lan honetan, Laffite jaunak Lapurtar Klasikoaren garapen historikoan etana sortzea edo teorizatu eta bataiatzea, geroztikakoentzat kaltegarri gertatu den etena, hain zuzen ere.

Biga bostetan ere esaten da Zuberoan. Eta beraz estilistikarako Zuberoan esaten bada, idazleak ere erabil dezakeela esan nahi da.

- (360) “Bost negar egiteko nonbait
jaio ginen.
Hamaika aldiz esana dago hori
Bereak eta bost eman zizkion
Mila bider esan dizut
Bi bertso paratuko ditut
Agur t’erdi”

Zenbatzaile enfatikoak, efektu estilistikoak sortzean indar handia dute, batez ere egoera psikologikoa nabarmen jartzeko. Gordetzen dute, beti ere, bertsotan nahiz idatzian usadioak damaien klitxe topikoa.

11. Dakigunez, **non** galderaren parekoa dugu **noiz** galdera eta biak morfema bera daramate:

- (365) “Mendian egon naiz (Non)”
“Hamarretan etortzen naiz (Noiz)”

Era berean, noiz eta nonen erabilerarako, aunitz hautabide eskaintzen digu euskarak:

- “Gaur eta bihar burutuko dut lana.
edo
Gaur biharretan burutuko dut lana.
Derion eta Mungian bizi naiz.
zein
Derio-Mungietan bizi naiz”.

12. Azter ditzagun jarraiko perpausak:

- (368) “Hamarretatik bostetara
nahiz
Hamarretarik bostak arte
zein
Hamarretarik bostetara”.

Ea Axularrek: “Haur da nik nahi nukeien gauzetarik bat” (93).

Edozelan ere, beti eta bakarrik erabiltzea “Hamarretatik bostak arte”, hizkuntzari hegoak moztea dateke.

Ordu delakoaren ordeaz oren ere erabiltzen du euskaldunak.

Axularrek: “Nola orenak kontatzen dituen” (93).

Berez egokia, zazpiak edo zazpi orenak esatea izanik, ez litzateke jauzi haundia idazleak zazpi orduak izkiribatzea.

13. Urteak eta data:

Urtea bi modu hauetara esan daiteke:

- (371) “1813: mila zortziehun eta hamahiru.
1813a: mila zortziehun eta hamahirua.
1983 garrena: mila zortziehun eta hamairugarrena”.

Data oso-osorik jartzen dugunean:

- (372) “1983-1-21ean: 1983ko urtarrilaren hogeitabatean”.
edo
(373) “1983-1-21a: 1983ko Urtarrilaren hogeitabata”.

Gutunean:

- (374) “Durangon, 1983ko Martxoaren hogeian”.
edo
“Durangon, 1983-3-20an”

Hilabete eta eguna esaterakoan:

- (379) “Urtarrilaren 20a”
nahiz
(380) “Urtarrilak 20”

Hilabeteko lehenbiziko egunari dagokionean:

- (382) “Martxoaren bata”
(383) “Martxoaren lehena”

14. Norbaiten adina adierazi nahi denean bitara egin dezakegu:

- (386) “Hamar urteko haurra”
“Hamar urtetako haurra”

Urte bat bakarrik baldin badu, ken daiteke bat hori, nahiz erabili:
“Urteko haurra”

Geron topatuko dugu:

“Urthe batetako haurra zen Saul” (94).

Koldo Mitxelenaren *Idazlan hautatueta*n, bai lau urtetatik lau urtetara eta bai lau urteko lana ere aurki ditzakegu.

Esamodu bikoitz hauez gainera, estilo aldetik aberatsa den beste aldameneko hau ere erabilgarria da oso idazterakoan, “Berrogeiko gizona zen ministro izendatzerakoan”.

15. Bost zenbatzaitetik gora, bide desberdinak ditugu frakzio hauek adierazteko. Horrela 7/10 frakzioak, adibidez irakurketa guzti hauek izan ditzake:

- (389) “hamarretik zazpi
hamarretarik zazpi
hamarretatik zazpi
hamarreko zazpi
zazpi hamarren”

Antzera 2/5 frakzioarekin:

- (390) “bostetik bi
bostetatik bi
bostetarik bi
bosteko bi”

Sarakoarenean irakurtzen dugu:

“Athera ziazotela aitari berari bere begietarik bata, eta semeari beretarik bertzea” (95).

Zenbakiotan finagotzat hartuko genuke hamarretarik zazpi erabiltzea.

16. Portzentaiaetan baditugu, ez izanik, antzeko diruditen adierazpideak:

- (392) “Liburu erdia irakurri zuen”
(494) “Liburuaren erdia irakurri zuen”

Beste esannahi bat dauka, ostera, hurrengo perpausa honek:

- (394) “Liburuen erdiak irakurri zituen”
edo
(385) “Liburuetatik erdiak irakurri
zituen”
“Liburuetarik erdiak irakurri
zituen”
“Libururik erdiak irakurri
zituen”

Estilo aldetik, behar bada, bata argiago nahiz zehatzago gerta dakioke idazle sortzaileari.

Nire ulermenerako, liburu erdia, liburu baten erdia da, eta liburu erdiak, liburuak erdizka irakurtzen dituela, ahantzi gabe erdi liburuak besterik dela.

Zenbait hiztun, liburuen erdiak esatera ohituago dago, liburuetarik erdiak esatera baino. Estilistari, geniotasunak darakuskioke, edo, agian, praktikak nahiz sentiberatasunak noiz zein zelan erabili.

17. Komuntadura aditzarekin:

Zenbatzailea bat bada, aditz morfologian singularra ageriko da:

(409) “Filme bat ikusi dut”. Bat horren ordeaz artikulua balerama bezala.

Zenbatzailea ez baldin bada bat, besteren bat baizik eta sintagma osoa –zenbatzileaz gain–, artikulua mugatzen baldin badu, aditz morfologian pluralaren aztarna ageriko da:

(410) “Bost andreei eman diet”.

Gainerako kasu guztietan singularrez edo pluralaz ageriko da aditza:

(411) “Bost andreri eman diot”.
 “Bost andreri eman diet”.

Honetan, bata nahiz bestea azaltzen zaizkigu idazleetan Leizarragandik hasirik. Beraz, hemen ere idazle bakoitzak subjektibotasunaren arabera beharko du nortasunez jokatu.

18. Ordinalak:

len kasuko aldakiak:

(415) “bat-lehen
 lehenengo
 lehenbiziko
 lehendabiziko”

Ordena bat amaitzen denean:

(418) “Azken
 Azkenengo
 Azkeneko”

-engo atzikia eta garren:

(419) “bigarren bigarrengo bigarreneko
 laugarren laugarrengo
 laugarreneko”

Axularrek dakar:

“Lehenago, Apostoluen denboran, eta oraino Apostoluak hillez gero ere lehenbizi berri hartan” (96).

“Erregeren *lehenbiziko* semeak” (97).

“Zeren batz *azken* egunean, iautsiko baitira” (98).

Norbaitek lehenengoren parean lehenago erabil baleza, ez luke ahantzi behar hor sor daitekeen zalantzagarritasuna, zeren lehenagorekin bi zentzu adierazten baitira, hau da: lehenago (= lehen) eta lehenago (= ez oraino). Alderantziz, zalantza, semantikarako ere baliozko dateke, jakina.

Ordinalek eta zenbakiak aukera polifazetikoak eskuratzen dizkigute, beti ere, izenlaguna eta izenaren artean kokaturik:

- (428) “Hauek dira bi lorategitako loreak”.
 “Hauek dira bi lorategietako loreak”.
 “Hauek dira lorategiko bi lore”.
 “Hauek dira lorategiko bi loreak”.

19. Multzotik aukera egitean:

Multzo batetik aukera egin behar dugunean, -eko, etatik (edo -etarik) edo -tan atzizkiak erabiltzen ditugu.

- (429) “Zapietatik hoberena”
 “Zazprietako handiena”
 “Bietatik batek”
 “Bietarik batek”
 “Bederatzietan handiena”

Axularrek: “Aita eta semeak bere begietarik bana galdu zuten”.

Gaurko idazleari, estilistikaren araudia baino gramatikaren legedia inposatzen zaiola nabarmentzeko, aski da ikustea zelan, eguneroko berbetan bostetarik bi, urterik urtera, e.a., darabiltzanari ez zaion behin ere narraziora pasatzen urtetik urtera, bostetatik bi edo antzerako esamoldea ez denik. Ikasi duena inposatzen zaio idazleari, ahozkoa baino gramatikakoa, testuan ikusi duena goragokotzat harturik. Baliteke, ordea, idazle berberorrek ezagut baleza Axular maisuaren erabilerak —non -rik aurkituko duen—, segurtasuna bereganaturik, hartaz baliatu ere egitea. Eta gerta litekeena da, irakurleagoak —zenbait eskualdetan ez balerabil ere—, oso ondo jasotzea, zeren ez baita, nik uste, euskaldunik “Donostiatik etxera” perpausaren aldamenean “Mendirik mendi” ezagut ez dezakeenik.

20. Kalkulu eragiketak:

Euskarazko irakaskuntzan erabiliak:

Gehiketa: 5 gehi 5 berdin 10 ($5 + 5 = 10$).

Kenketa: 3 ken 1 berdin 2 ($3 - 1 = 2$).

Biderketa: 4 bider 3 berdin 12 ($4 \times 3 = 12$).

Zatiketa: 4 zati 2 berdin 2 ($4 : 2 = 2$).

Beste hizkuntzetako erabilerak kontutan harturik:

Adizioa: 5 plus 5 berdin 10 ($5 + 5 = 10$).

Substrazioa: 3 minus 1 berdin 2 ($3 - 1 = 2$).

Multiplikazioa: 4 per 3 berdin 12 ($4 \times 3 = 12$).

Dibisioa: 4 inter 2 berdin 2 ($4 : 2 = 2$).

Hemen, adizio erabiltzen den tokian suma ere erabiltzea ez da aberasgarri, bat finkatzeko premian baikaude. Eta estilistikaren aldetik so eginik, —gailan jakintsu direnak gutxietsi gabe—, bidezko deritzogu, O.H.O.erarte gehiketa, biderketa..., oker ez banabil Alemanez ere jokutzen den antzera.

21. Distributiboak:

1. Aldien adieraztasuna.

Behin/baten

Bi aldiz/bi bider/birritan/bitau

Hiru aldiz/hirutan

Hara Pedro Agerrek:

“Asko othe da geroko luzaturik, urthean behin konfesatzea?” (99).

Nik bezain ongi dakizue baten doala nagusituz behin-en kaltetan. Ipuinetarako behin-en ahuleziak, agian, baten laguntza eskatu du. Horrela behin batean formula egina sorturik. Kasu honetan, batean-bestean, batetatik bereiztearen aldeko agertu arren, eta gorago badirudi ere, klitxe eginaren balioa funtsezkoago dela esango dugu, oraingoan, gramatikaren araberrako zuzenketa baino, behin batetan baino, alegia.

22. Zenbait:

Zenbatzaile zehaztugabe hau ezkerrean nahiz eskuin aldean joan daiteke:

(444) “Zenbait andrekin ez du onartuko hori”

“Andre zenbaitek ez du onartuko hori”

Aditzarekiko komuntzaturari dagokionez, berriz, aditza singularrez nahiz pluralrez joango da:

(447) “Zenbait zerri ikusi dut”
“Zenbait zerri ikusi ditut”

Besterekin ere antzera joka genezake, nahiz eta eskuinaldean modu markatuagoan erabiliko genukeen:

“*Beste* herrian bizi da”

“Herri *bestean* bizi da”

23. Asko:

Zenbatzaile zehaztugabe hau, ezkerrean edo eskuinean joan daiteke:

“Gizon asko”

“Asko gizon”

Zenbatzaile honen aditzarekiko komuntztadura, singularrez nahiz pluralrez doake.

Asko eta anitz parekoak ditugu.

Axularrek idatzi zigun:

“Anhitz milla urte, anhitz mendu du, hemen gaudezilla” (100).

“Zeren bera baita bere baithan eder asko” (101).

“Kondenatu guztien edukitzeko asko handia” (102).

Asko othe da geroko luzaturik, urthean behin konfesatzea (103).

Inon behar bada idazle begia, hemen ere behar da, ezen espainolaren menpekotasunetik datorkigun “asko denbora” moduko ikastola-perpauen aurrean, idazle klasikoan, J.B. Agirreren “asco becatoren” tankerakoak erabiltzen ikasi behar baitugu.

Zilegi izan bekit, behingoz bederen, Axularrek eskaintzen dizkigunetarik eredu izan litekeen arestian aipatutakoa berrazpimarratzea:

“Bera baita bere baitan”

Prosa poetikoko aztarna den perpausa horretan, Sarako erretoreak entzun egiten du hizkuntza, barnean bor-bor dabilkion musikalitate koloretikutakako doinua datorkio eskuetako luma kantarira.

24. Asko-ren erabilera:

Beldur izan, gose izan, maite izan/ukan-en gisako izen zenbakaitzetan, beldur *handia* eta abar esan ordez, asko erabiltzeko joera oso hedaturik dago.

Guk halako perpausak osotzerakoan, asko badarabilgu, hizkera arruntean ari gara eta goimailakoan beldur asko daukat erabili ordez “Izugarri beldur naiz”; “Biziki maite zaitut”; “Hotz handia dago” eta baliokideak idatz ditzagunean; beti ere, subjektibotasuna ematen dela ahantzi gabe.

A) “Maitasun *asko* dauka Teresak?”

B) Ez, bakarra uste dut, senarrarekin bakarrik dabil.

A) Ez dut zenbat galdetu! Ea asko maite duen emaztea!

B) Ah, eta maitasun handia dion jakin nahi duzu? Bai, baiezkoan nago.

25. Asko mugatua:

Zenbait mintzairatan asko, artikulua eta guzti adjektibo baten ondotik agertzen zaigu, esaten da Euskaltzaindiko gramatikan. Baina gramatikako arauetan baino estilistikan sartu behar da, balio espresiboa du eta.

(466) “Polit askoa da etxe hura”.

(466) “Polit askoak dira etxe haiek”.

Modu berean erabiltzen da aski ere

(467) “Gizon jator askia da hori!”

Esapide horiek ondo eta ongi adberbioez baliaturik eman daitezke.

(468) Etxe hori ondo polita da!

26. Guti:

Guti zenbatzaile zehaztugabeak aldaki ugariak ditu: gutxi, gutti, e.a.

“Zeren hartaraz gero, *gutiak* dira ongi libratzen direnak, galdu gabe eskapatzen direnak” (104).

Behin bakarrik bada ere, grafia ikutuko dugu.

Axularrek idatzi zuen:

“Finean eskiribatze hunen gainean, diot ezen, nola latinak bi i eta bi v egiten baititu bat eta hartzen batentzat: adjicio, conjicio, vultus, vulnus. Eta españolak ere bi l egiten baititu bat, llamo, lloro: hala euskarak ere bi t egiten dituela bat, *ttipia*, *ttipittoa*, *gizonttoa*, *haurtooa*. Zeren eskiribatzeraz txipia, txipitxoa, gizontxoa, haurtxoa ezta ongi heldu, euskaraz ongi mintzatzen direnen artean” (105).

“Vemos con claridad que el problema no está en los sonidos vascos, sino en las grafías que se les han dado, que son inaceptables para el que habla bien euskera. ¿Se estará refiriendo a S. Povreau y a Materre, el antecesor de Axular, que seguramente no eran vascos”? (106).

Nik, hizkuntzaren mailak grafiari buruz ezartzerakoan, baditut bai honetan zein antzerako kasuetan oztupoak. Ene gogoz guti goimailakoagotzat, kultuagoztat joko nuke gutxi baino, zerbaitetarako da Axular maisu eta.

Gaur, ordea, neure gogoko ez den ortografian ibili beharrean aurkitzen naizenez, ez da errez zuzen jokatzeari Pharmazia ph-rekin oso dut atsegin baina Euskaltzaindiaren joera ez doa bide horretatik nahiz eta kultur hitzei buruz erabakirik hartu ez duen. Nik ulertzen dut –larrutik pagatu dut eta– h-aren inguruan sortu zen arazoez nolako arriskuan jarri izan duten batasuna eta bada-*kit*, arretaz, kontuz jokatu behar dela, baina jaun-andreok extra, extraterrestre, extradizio s-z idazteko araua argitaratzea, hori markakoa da. Ez hobe, ez txarragoa delako, berez, estilistikatik begiraturik argotaren mailako agertzen delako baino.

27. Franko:

Hiru erabilera ditu zenbatzaile honek:

- (486) “Franko gizon”
 “Gizon franko”
 “Gizona franko”
 “Bada hemen bentura franko” (107).

28. Zenbatzaile orokorrak:

Dena zenbatzailea bakarrik doa, izenik gabe:

- (492) “Mutiko horrek dena daki”
 “Denak sartu ziren gela hartan”

Guztia edonoiz ager daiteke izen batekin edo bakarrean.

Aurreko hori gramatikan esaten zaigun arrren, idazleak aise nabarmenduko du “Esandako denak ziren egia” moduko perpausa sortzeko premia. Ez genuke

ecartzat ere hartuko ezen bertso saioetara lihoanak behin eta berriz entzungo lituzke “Euskal Herri denak” tankerako bertsoak.

“Bertze hizkuntza eta lengoaia komun guztiak” (108).

“Guztiek zuregana laster” (109).

29. Oro zenbatzailea:

9.1. Izena artikulurik gabe + oro + kasu-marka:

(497) “Gizon orok behar luke pentsatu”.

9.2. Izena + artikulua + plurala + oro + kasu marka:

(408) “Gizonak oro hilkorrek dira.”

“Gizonak orok esan dute”.

Bakarrik ere ager daiteke:

(499) “Orok dakite”.

Axularrek:

“Egun oro meza entzutea” (110).

Ahoskoan arkaikotua dagoen arren —haren orde den/denak, guztia/guztiak erabiltzen delarik—, idatzian oso aberatsa eta esanguratsua da oro. Hara adibidea:

Gazteak oro dira urre.

“Ifarraldeko hizkera batzuetan oroek —datibo pluralean oroer—, eta halako formak ere badabiltza egungo egunean, artikulua plurala itsatsirik daramatela” (111).

III. Nolakotzaileak

Zein, zer, zenbat, beste, edozein...

1. Izen sintagmaren ezker aldean ageri dira:

Edozer gauza esaten duzu

2. Ez dute mugatzailerik onartzen besteren kasuan izan ezik.

“Zein parte estimatzen duzu hobe, Iainkoarena ala deabruarena?” (112).

Besteren kasuan eskuinaldea ere ezagun duke euskaldunak:

“Herri bestean bizi zen” jaso baitut neuk

Belarriak, senak eta doinuak egokioagotzat ematen didate, perpausaren barruko ordenari begira:

“Zein kotxe duzu nahiago?

Zein kotxe nahiago duzu?” baino

“Pluralaren garatzea zein forman ere agertzen da Euskal Herriaren zati baterako..., jatorriz berdin balio zuen singularrari nahiz pluralari begira. Nabarmen denez zeintzuk esaten da, batzuk formaren analogiaz sortua, eta arrazoi horrexegatik zein singularizat hartzen da... Beste alderdi batetik edozein forma deribatuan..., ez da pluralik batere garatu” (113).

Helmuga honetan burutzen dut oraindainoko determinatzaileei buruzko lana. Estilistikarako egokiago delakoan, metodo analitikoaz baliatu naiz. Gramatikak damaigun ordenera ohituago gaudelako, morfologiako atal bakoitza ardatz gisa harturik haren inguruan eman ditut arau estilistikoak.

Lehen partean, ordea, metodo sintetikoaren abantailak ez saihesteko, oso teorikoki bada ere estilistikari legozkiokeen oinarrizko legeak adierazten saiatu naiz, Axular maisua giltzarri eta gidari izan dudalarik.

Azken fineko oharra

Besterik eta bestela uste duenik faltako ez den arren, nik enea adierazi beharko dizuet. On zen, argi eta seguru Altuberren joskera bizikletan ibiltzen ikasteko, hemengo eskualdeetakoentzat, jakina, ezen inola ere ez euskaldun guztientzat. Metodo finkoa zen perpausen ordena moldatzen ikasteko. Geroztik, ordea, errepide luzeagoak ibili beharra izan dut batean, aldapak igoteko premia, hurrengoan. Eta nik, egunoro nabarmentzen nuen noraino zen nekeza pinoi fixoan etxeko bide zidorra, Nafarroako lautadak nahiz Bilbotik Behobiarako autobidea kurritzea.

Txirindulari profesionalen makinak aztertu nituen, haiek darabiltzaten tankerako pinoiak neureganatzeko. Orain, badut bat aldaparakoa, bestea jaistekoa, lautadetarakoa ere bai, eta horrela.

Arinago, azkarrago mugitzen naiz Altuberren txirindolako pinoia gibeleraturik? Ez, ezta hori! Orain ritmoak aldatzen dakit. Estilo askatua dei genezakeena eskuratu dut idazmolde desberdinoi esker.

Ondotxo dakit, guztiarekin ere, ezer guti dela tresnarik egokiena gaitasunik gabearen idazluman. “Les règles disiez-vous encore, ne peuvent suppléer au génie, s’il manque elles seront inutiles” (Buffon). Alderantziz, baina, pinoi bakarreko bizikletaz “tourra” irabaz lezanak ere beharko lituzke irentsi hainbat arauz-kanpoko doping, printzeen Parnaso-ra jarraitzaileen txalo artean garaile heltzeko.

Eskerrik asko.

Bibliografia

1. JEAN DUBOIS Y OTROS: *Diccionario de Lingüística*. Alianza Editorial, S.A. Madrid, 1979, 245. orr.
2. JEAN DUBOIS Y OTROS: Op. cit., 246. orr.

3. KOLDO MITXELENA: *Euskal lingüistika eta literatura*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 1981ean, 63, orr.
4. TALDEAN: *Fontes* n.º 16, Enero-Abril 1974. "Homenaje a Axular", 127. orr.
5. J. M. GONZALEZ-CREMONA: *Dic. General de Frases y dichos Célebres*. Ed. Mitre. Barcelona, 1987, 196. orr.
6. B. ATXAGA: *Argia* aldizkaria, 1988.eko iraila 1210, 36. orr.
7. Federico KRUTWIG: *Stylistikeaz eta styloari buruz*, 1. orr. Azkue Biblioteka. Euskaltzaindia.
8. BUFFON: *Discours sur le style*. Espasa-Calpe. Barcelona, 18. orr.
9. Aita VILLASANTE: *Fontes*, op. cit., 36. orr.
10. Koldo MITXELENA: *Fontes*, op. cit., 121. orr.
11. José M. POZUELO: *La lengua literaria*. Librería Agora, S.A. Málaga, 1983, 37. orr.
12. Koldo MITXELENA: *Euskal Lingüística eta Lit.*, op. cit., 274, orr.
13. AXULAR: *Gero, Jakin* Arantzazu. Oñati, 1976, 11. atala.
14. Umberto ECO: *La bustina de Minerva*. L'espresso, 31 Luglio 1988.
15. K. M.: *Euskal Lingüística eta Lit.*, op. cit., 259. orr.
16. José M. POZUELO: Op. cit., 78. orr.
17. *Fontes*, op. cit., 121. orr.
18. Aita VILLASANTE: *Fontes*, op. cit., 36. orr.
19. AXULAR: *Gero*, op. cit., 10. atala.
20. *Argia* aldizkaria, 1.210. zenbakia, 38. orr.
21. José M. POZUELO: Op. cit., 36. orr.
22. Gotzon GARATE: *Erdarakadak*, Mensajero, Bilbon, 1988an, XV. orr.
23. Koldo MITXELENA: *Idazlan hautatuak*, Etor, A., Bilbo, 1972, 164. orr.
24. *Fontes*, op. cit., 147. orr.
25. AXULAR: *Gero*, op. cit., 10. orr.
26. Luis VILLASANTE: "Axular: Mendea, Gizona, Liburua", *Jakin A.*, Arantzazu, Oñati, 1972.
27. BARANDIARANGO Joxemiel: *Fontes*, op. cit., 102. orr.
28. Aita VILLASANTE: *Gero*, op. cit., X. orr.
29. *Fontes*, op. cit., 100. orr.

30. Koldo MITXELENA: Euskaltzaindia, *Euskera*, 1968, 218-219. orr.
31. Andolin EGUZKITZA: *Correo* aldizkaria, 1988-VII-21.
32. Koldo MITXELENA: *Fontes*, op. cit., 104. orr.
33. Koldo MITXELENA: *Euskal Lingüistika eta Lit.*, op. cit., 263. orr.
34. G. ETXEBERRIA, I. IÑURRITEGI: *Euskal Literatura*, E.H. Unibertsitatea, Bilbo, 1985, 215. orr.
35. Koldo MITXELENA: *Idazlan hautatuak*, op. cit., 165. orr.
36. Martin LINGS: *El secreto de Shakespeare*, Ed. de la Tradición Unánime. Palma de Mallorca, 1988, 10. orr.
37. AXULAR: *Gero*, op. cit., 36. orr.
38. G. ETXEBARRIA, I. IÑURRITEGI: Op. cit., 214. orr.
39. BUFFON: Op. cit., 19. orr.
40. AXULAR: *Gero*, op. cit., 159. atala.
41. Koldo MITXELENA: *Idazlan hautatuak*, op. cit., 165. orr.
42. AXULAR: *Gero*, op. cit., 43. atala.
43. AXULAR: *Gero*, op. cit., 265. atala.
44. AXULAR: *Gero*, op. cit., 115. atala.
45. Martin LINGS: Op. cit., 154. orr.
46. José M. POZUELO: Op. cit., 77. orr.
47. Federico KRUTWIG: Op. cit., 13. orr.
48. Gotzon GARATE: *Erdarakadak*, op. cit., XIII. orr.
49. Koldo MITXELENA: *Euskal lingüística eta lit.*, op. cit., 59. orr.
50. Alfonso IRIGOYEN: *De re philologica linguae vasconicae II*. Bilbo, 1987, 54. orr.
51. Alfonso IRIGOYEN: *Euskera XXX*, 129. orr.
52. AXULAR: *Gero*, op. cit., 4. atala.
53. Koldo MITXELENA: *Fontes*, op. cit., 133. orr.
54. Azkue Biblioteka. Euskaltzaindia.
55. Alfonso IRIGOYEN: *Euskera*, 1985, 129-139. orr.
56. AXULAR: *Gero*, op. cit., 3. atala.
57. AXULAR: *Gero*, op. cit., 2. atala.
58. AXULAR: *Gero*, op. cit., 3. atala.

59. Alfonso IRIGOYEN: *De re philologica*, op. cit., 55. orr.
60. AXULAR: *Gero*, op. cit., 13. atala.
61. *Euskal Gramatika*. Euskaltzaindia.
62. AXULAR: *Gero*, op. cit., 342. atala.
63. María ARRIETA: 1988-IX-11.
64. AXULAR: *Gero*, op. cit., 109. atala.
65. Koldo MITXELENA: *Idazlan hautatuak*.
66. Gramatika diogunean, Euskaltzaindikoaz ari gara.
67. Koldo MITXELENA: *Idazlan hautatuak*, op. cit., 7. orr.
68. AXULAR: *Gero*, op. cit., 127. atala.
69. AXULAR: *Gero*, op. cit., 109. atala.
70. José M. POZUELO: Op. cit., 55. orr.
71. AXULAR: *Gero*, op. cit., 170. atala.
72. AXULAR: *Gero*, op. cit., 11. atala.
73. AXULAR: *Gero*, op. cit., 5. atala.
74. José M. POZUELO: Op. cit., 59. orr.
75. AXULAR: *Gero*, op. cit., 274. atala.
76. AXULAR: *Gero*, op. cit., 231. atala.
77. AXULAR: *Gero*, op. cit., 261. atala.
78. AXULAR: *Gero*, op. cit., 13. atala.
79. José M. POZUELO: Op. cit., 54. orr.
80. AXULAR: *Gero*, op. cit., 9. atala.
81. AXULAR: *Gero*, op. cit., 261. atala.
82. AXULAR: *Gero*, op. cit., 18. atala.
83. AXULAR: *Gero*, op. cit., 78. atala.
84. AXULAR: *Gero*, op. cit., 4. atala.
85. AXULAR: *Gero*, op. cit., 389. atala.
86. A New Testament Interlinear with Lexicon and Synonyms. Chicago, 1946, J. 4, 27.
87. LEIZARRAGA, I.: CH. G.J.T.B., Hordago, J. 4. 27.
88. AXULAR: *Gero*, op. cit., 13. atala.

89. LEIZARRAGA: Mt. XXVI, 53.
90. AXULAR: *Gero*, op. cit., 156. atala.
91. AXULAR: *Gero*, op. cit., 9. atala.
92. AXULAR: *Gero*, op. cit., 10. atala.
93. AXULAR: *Gero*, op. cit., 385. atala.
94. AXULAR: *Gero*, op. cit., 125. atala.
95. AXULAR: *Gero*, op. cit., 231. atala.
96. AXULAR: *Gero*, op. cit., 343. atala.
97. AXULAR: *Gero*, op. cit., 370. atala.
98. AXULAR: *Gero*, op. cit., 378. atala.
99. AXULAR: *Gero*, op. cit., 342. atala.
100. AXULAR: *Gero*, op. cit., 389. atala.
101. AXULAR: *Gero*, op. cit., 331. atala.
102. AXULAR: *Gero*, op. cit., 373. atala.
103. AXULAR: *Gero*, op. cit., 342. atala.
104. AXULAR: *Gero*, op. cit., 147. atala.
105. AXULAR: *Gero*, op. cit., 9. atala.
106. Itziar MITXELENA: *Fontes*, op. cit., 87. orr.
107. AXULAR: *Gero*, op. cit., 49. atala.
108. AXULAR: *Gero*, op. cit., 11. atala.
109. AXULAR: *Gero*, op. cit., 2. atala.
110. AXULAR: *Gero*, op. cit., 321. atala.
111. Alfonso IRIGOYEN: *Euskera XXX*, op. cit., 131. orr.
112. AXULAR: *Gero*, op. cit., 325. atala.
123. Alfonso IRIGOYEN: *Euskera*, op. cit., 132. orr.